

4.2. Gaiaren lanketa

> Txano Gorritxo: ipuinaren lanketa



- Irudiak ordenatu

Helburuak

- Ulermena lantzea.
- Ipuinen kronologia lantzea.

Prozedura

- Ume kopuruaren arabera bi edo talde gehiago egin umeen artean (asko jota lau ume talde bakoitzeko).
- Talde bakoitzari irudi-sorta bat eman.
- Talde bakoitzeko umeek irudiak ordenatu.
- Ondo ordenatu arte, hezitzaileak zenbat ondo eta zenbat gaizki dauzkaten esan.
- Denek ondo dituztenean, irudi bakoitzean gertatzen dena deskribatu.
- Talde handian, talde bakoitzak, irudi bakoitzean gertatzen dena deskribatu. Denen artean adostu zein den deskripziorik egokiena.

Oharra

- Irudien bi kopia edo gehiago egin, ume kopuruaren eta hezitzailearen estiloaren arabera, eta gelara eraman aurretik moztu eta plastifikatu.